

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2019ko abuztuaren 5etik 30era bitarteko astea.**

## **I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:**

### **Estatuko Aldizkari Ofiziala 2019/08/06**

- Ebazpena, 2019ko uztailaren 31koa, Idazkaritza Nagusi Teknikoarena, zeinaren bitartez argitaratzen den Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak eta Lanaren Zuzendaritza Nagusiak datuak lagatzeko sinatutako hitzarmena. [2019-11556 xedapena - 11 or.](#)

### **Estatuko Aldizkari Ofiziala 2019/08/20**

- Ebazpena, 2019ko abuztuaren 8koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den perfumeria eta antzekoei buruzko Estatuko hitzarmen kolektiboa. [2019-12302 xedapena - 82 or.](#)

### **Estatuko Aldizkari Ofiziala 2019/08/27**

- Ebazpena, 2019ko abuztuaren 19koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den Estatuko Loteria eta Apustuen Sozietate Estatalaren merkataritza-ordezkaritzentzako Estatuko hitzarmen kolektiboaren 2019rako luzapenari eta soldata-berrikuspenari lotutako hitzarmena. [2019-12485 xedapena - 2 or.](#)
- Ebazpena, 2019ko abuztuaren 19koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den eguneko prentsa-sektorearen Estatuko hitzarmen kolektiboa. [2019-12486 xedapena - 39 or.](#)
- Ebazpena, 2019ko abuztuaren 19koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratu eta argitaratzen den eraikuntza-sektorearen hitzarmen kolektibo orokorraren aldaketa. [2019-12487 xedapena - 3 or.](#)
- Ebazpena, 2019ko abuztuaren 19koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen diren unibertsitate pribatuetako, unibertsitate-zentro pribatuetako eta graduondokoentzako prestakuntza-zentroetako VII. hitzarmen kolektibo nazionalaren 2018ko ordainsarien taulak. [2019-12489 xedapena - 3 or.](#)

## **II.- XEDAPEN OROKORRAK:**

### **E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)**

#### **2019/08/03**

- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. - Animalien osasuna.** - SCB/841/2019 Agindua, uztailaren 23koa, zeinaren bitartez aldatzen diren apirilaren 29ko 599/2011 Errege Dekretuaren I. eta II. eranskinak, zeinaren bitartez ezartzen diren txerri-aziendaren zaintza sanitarioari buruzko planaren oinarriak. [2019-11402 xedapena - 2 or.](#)

## **2019/08/05**

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. - Nazioarteko hitzarmenak.** - Distantzia handiko mugaz haraindiko aireko kutsadurari buruzko 1979ko hitzarmenaren protokoloaren testua eta II-IX eranskinak aldatu daitezzen, bai eta X. eta XI. eranskin berriak gehitu daitezzen ere, onartzeko tresna, troposferako azidotzea, eutrofizazioa eta ozonoa murrizteari buruzkoari dagokionez; hitzarmenak Genevan egin ziren, 2012ko maiatzaren 4an. [2019-11459 xedapena - 84 or.](#)
- **KANPO ARAZOETARAKO, EUROPAR BATASUNERAKO ETA KOOPERAZIORAKO MINISTERIOA. - Nazioarteko hitzarmenak. -**
  - M315 elkar aitortzeko hitzarmena, salgai arriskutsuak errepidez garraiatzeari buruzko Europako hitzarmenaren A eranskinaren 1.5.1 atalari jarraikiz, sukar hemorragikoa eragiten duten eta birusa dakarten hondakin kutsatuak garraiatzeari buruzkoa; hitzarmena Madrilen egin zen, 2019ko uztailaren 8an. [2019-11460 xedapena - 3 or.](#)
  - Akats-zuzenketa, Idazkaritza Nagusi Teknikoaren 2019ko uztailaren 11ko Ebazpenarena, nazioarteko tratatuei eta bestelako hitzarmenei buruzko azaroaren 27ko 25/2014 Legearen 24.2 artikuluari jarraikiz. [2019-11461 xedapena - 1 or.](#)

## **2019/08/08**

- **OGASUN MINISTERIOA. - Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga.** - Akats zuzenketa, ekainaren 28ko TEC/773/2019 Aginduarena, zeinaren bitartez arautzen den pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan erregistratutako liburuak eraman daitezzen. [2019-11645 xedapena - 1 or.](#)

## **2019/08/13**

- **OGASUN MINISTERIOA. - Aduanak.** - Ebazpena, 2019ko abuztuaren 2koa, Zerga Administrazioiko Espainiako Agentziako Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez esku-hartze soziala hedatzen den, baimendutako mugaldeko langileak altan emateko eskaera telematikoki aurkeztu dadin, Zerga Administrazioiko Espainiako Agentziako Aduana eta Zerga Bereziatako Sailaren 2014ko uztailaren 25eko Ebazpenaren bitartez onetsitakoa, zeinaren bitartez arautzen den, mugaldeko langileei begira, zirkuitu gorria erabiltzeari dagokion kasu berezia, betiere, bidaiariak La Línea de la Concepcióneko Aduana eta Zerga Berezien Administrazioaren bidez garraiatzean. [2019-11914 xedapena - 4 or.](#)

## **2019/17/08**

- **LANAREN, MIGRAZIOEN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOA. - Gizarte Segurantza.** - Ebazpena, 2019ko abuztuaren 2koa, Gizarte Segurantzaren Antolamendua-  
ren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez ezartzen diren Gizarte Segurantzarekin lan egiten duten mutualitateei koefizienteak aplikatzeko terminoak, hain zuzen ere, enpresa

elkartuetako beste inorentzat lan egiten duten langileen kontingentzia komunetatik eratorritako aldi baterako ezintasunen ondoriozko prestazio ekonomikoa kudeatzeko koefizienteak. [2019-12192 xedapena - 15 or.](#)

## **2019/08/27**

- **LANAREN, MIGRAZIOEN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOA. – Atzeritarrrak.** - Ebazpena, 2019ko abuztuaren 19koa, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoarena, zeinaren bitartez argitaratzen den betetzeko zailak diren lanpostuen katalogoa, 2019ko hirugarren hiruhilekorako. [2019-12490 xedapena - 2 or.](#)

## **E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)**

### **2019/08/07**

- **SEGURTASUN SAILA.** - AGINDUA, 2019ko uztailaren 24koa, Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez garatzen baita nola bete behar diren erregistro-betebeharrak eta Ertzaintza informatzeko betebeharrak objektu erabiliak salerosi edo konpontzeari dagokionez, plataforma digitalak barnean hartuta. [3774 xedapena -5 or.](#)

## **A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)**

### **2019/08/12**

- **ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUAK.** - FORU GOBERNU KONTSEILUAREN 1/2019 ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUA, UZTAILAREN 30EKOA. ONESTEA ARABAKO ZERGA ARAUDIA EGOKITZEA ESTATUAK HAINBAT ZERGATAN EGINDAKO ALDAKETETARA. [2597 xedapena - 11 or.](#)

### **2019/08/28**

- **FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK.** - FORU GOBERNU KONTSEILUAREN 40/2019 FORU DEKRETUA, ABUZTUAREN 2KOA. ONESTEA GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEAK EMATEN DITUEN ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEA. [2764 xedapena - 53 or.](#)

## **B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)**

### **2019/08/23**

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** - Bizkaiko Foru Aldundiaren 125/2019 FORU DEKRETUA, abuztuaren 21ekoa. Honen bidez, batetik, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Erregelamendua onesten da; bestetik, UEFA Euro 2020 txapelketaren azken fasearen araubide fiskala garatzen da, eta, azkenik, aldatu egiten dira Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorra administrazio bideko berrikuspenaren arloan garatzeko Erregelamendua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-ikuskapenaren Erregelamendua eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren erregelamenduak. [61 or.](#)

## **G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)**

## **E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala): [Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala](#)**

### **2019/08/09**

- Batzordearen 2019/1338 erregelamendua (EB), 2019ko abuztuaren 8koa, zeinaren bitartez aldatzen den 10/2011 erregelamendua (EB), elikagaiekin kontaktuan egongo diren material eta objektu plastikoei buruzkoa (1). [3 or.](#)

### **2019/08/22**

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 3ko 2014/45/EB zuzentarauaren akats zuzenketa, motordun ibilgailuen eta horien atoiaren aldizkako ikuskapen teknikoei buruzkoa eta zeinaren bitartez indargabetzen den 2009/40/EE (EBAO L 127, 2014.4.29) zuzentaraua. [55 or.](#)
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 3ko 2014/47/EB zuzentarauaren akats zuzenketa, Europar Batasunean dabiltzan merkataritza-ibilgailuen errepideko ikuskapen teknikoei buruzkoa eta zeinaren bitartez indargabetzen den 2000/30/EE (EBAO L 127, 2014.4.29) zuzentaraua. [2 or.](#)

**Kepa Bilbao Zubiaur**

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: [serviciosjuridicos@mutualia.es](mailto:serviciosjuridicos@mutualia.es)

.....  
MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2  
HENAO, 26 - 48009 BILBAO